



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa-oharra

Ana Madariagak Bizkaian oporretan diran ume sahararrak hartu ditu Gernikako Batzarretxean

Bilbon, 2012ko uztailaren 11n. “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz” proiektuari esker familia bizkaitarrak udako oporrak igaroten dagozan ume sahararrak Gernikako Batzarretxean izan dira gaur goizean. Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak harrerea egin deutse eta lagundu egin deutse Bizkaiko legebatarrean izan daben bisitaldian; Gernikako Aretxa, euskaldunek dauken ikurrik unibersalena, be erakutsi deutse.

Madariaga andreak, lehenengo eta behin, ongi etorria egin deutse umeei eta konbitea luzatu deutse Euskal Herriarentzat hain esanguratsua dan Batzarretxeko txokoak ezagutu daiezan. Ume sahararrak adi-adi egon dira Lehendakari andrearen eta gidarien azalpenak entzuten. Leiarpeko aretoa ikusi eta gero, Batzar Aretoko jarlekuetan jesarri dira eta, azkenik, ekitaldia gogotan eukiteko argazkia atara dabe euskaldunen Aretxaren ondoan, Bizkaiko ordezkariak Erdi Arotik hona biltoki izan daben horren itzalpean hain zuzen.

“Oporrak Bakean-Vacaciones en paz” proiektuaren barruko “Begirada Alaiak Aterpetxea” egitarauan parte hartzen dabe ume sahararrek. Egitarau horri esker, umeei aukerea dabe udaldian behintzat Aljeriako Tindouf-eko errefuxiatu-kanpaleku gogorretatik joateko, non sasoi honetan 50 gradu baino gehiagoko beroa izan leiteken. Antolatzaileek bisitaldi-egitarau ondo hornidua prestatu deutse eta, besteak beste, Gernikako Batzarretxea, Enkarterrietako museoa, Guggenheim museoa edo Athletic Club-eko garaikurren aretoa ikusi ahal izango ditue.

“Begirada Alaiak Aterpetxea” deritxan ekimen hori “Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe” garapenerako lankidetzaren ekimena da. Alkarte hori Metro Bilbaoko eta EuskoTrenetako langileek osatzen dabe eta Euskadiko Saharar Ordezkaritzaren babesa dau. Horri esker izango ditugu ume sahararrak Bizkaiko familiakaz abuztuaren 25era arte.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

Ana Madariaga recibe en la Casa de Juntas de Gernika a los niños y niñas saharauis de vacaciones en Bizkaia

Bilbao, a 11 de julio de 2012. Los niños y niñas saharauis que están disfrutando de dos meses de vacaciones estivales en familias vizcaínas gracias al proyecto “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz”, han visitado esta mañana la Casa de Juntas de Gernika. La Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, los ha recibido y acompañado por el interior del edificio foral, en una visita guiada que ha servido para que conozcan la sede parlamentaria vizcaína y el símbolo más universal de los vascos: el Árbol de Gernika.

Tras darlos la bienvenida, Madariaga ha invitado a los pequeños a conocer los rincones de este lugar de enorme carga simbólica para el Pueblo Vasco. Los saharauis se han mostrado muy interesados por las explicaciones ofrecidas por la presidenta y por las técnicas de la Casa de Juntas, en su recorrido por las dependencias forales. Tras visitar la sala de la vidriera y tomar asiento en el salón de plenos, el grupo se ha hecho una foto de recuerdo junto al mítico roble, símbolo de las libertades vascas y punto de encuentro de los apoderados y apoderadas del Señorío de Bizkaia desde la Edad Media.

Los niños y niñas saharauis participan en el programa “Begirada Alaiak Aterpetxea”, incluido dentro del proyecto “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz”, por el que los menores abandonan durante los meses de verano las difíciles condiciones de los campamentos de refugiados saharauis de la región argelina de Tindouf, donde las temperaturas pueden llegar a superar en estas semanas los 50 grados centígrados. Los organizadores han preparado un completo programa de visitas, para acercarles a lugares tan emblemáticos como la Casa de Juntas de Gernika, el museo de las Encartaciones, el museo Guggenheim o el salón de trofeos del Athletic Club.

“Begirada Alaiak Aterpetxea” es una iniciativa de la asociación de cooperación al desarrollo “Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe” formada por empleados de Metro Bilbao y de EuskoTren y respaldada por la Delegación Saharaui en Euskadi, gracias a la cual la estancia de estos niños en familias vizcaínas se alargará hasta el 25 de agosto.